



**DATU PERTSONALEN BABESA. ERABAKI AUTOMATIZATU INDIBIDUALIZATUEN
MENPE EZ EGOTEKO ESKUBIDEA BALIATZEA /**

**PROTECCIÓN DATOS PERSONALES. EJERCICIO DEL DERECHO A NO SER
OBJETO DE DECISIONES INDIVIDUALES AUTOMATIZADAS**

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE			
NAN / DNI ¹	Izen-abizenak / Nombre y apellidos		E / M G / H
Jakinarazpenetarako helbidea / Dirección para notificaciones			Herria / Población
P.K. / C.P.	Probintzia / Provincia	Helbide elektronikoa / Dirección electrónica ²	Telefona / Teléfono ²

ORDEZKARIAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE			
NAN / DNI ¹	Izen-abizenak / Nombre y apellidos		E / M G / H
Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentua / Documento acreditativo de la representación ⁽¹⁾			
Jakinarazpenetarako helbidea / Dirección para notificaciones			Herria / Población
P.K. / C.P.	Probintzia / Provincia	Helbide elektronikoa / Dirección electrónica ²	Telefona / Teléfono ²

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorraren 22. artikuluan xedatutakoarekin bat:

ESKATZEN DUT

Ez egotea tratamendu automatizatu batean soilik — profilak egitea barne— oinarrituta dagoen erabaki baten menpe, baldin eta horrek ondorio juridikoak edo antzeko ondorio esanguratsuak dituenean niregan, batez ere alderdi hauei dagokienez:

De conformidad con el artículo 22 del Reglamento UE 2016/679 General de Protección de Datos (RGPD),

SOLICITO

No ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que me produzca efectos jurídicos o me afecte significativamente de modo similar, en particular en los siguientes aspectos:

--

¹ NAN edo dokumentu baliakidea. Fotokopia aurkeztu behar da / DNI o documento equivalente. Adjuntar fotocopia.

² Aukerakoa / Opcional



Erregelamendu Orokorraren 22.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, ezin bada eskubidea aplikatu, baina tratamenduaren oinarrian kontratu bat egitea edo betearaztea egon bada edo nik neuk berariazko adostasuna adierazi badut, eskatzen dut neurriak hartzeko guzti honetarako: nire eskubideak eta askatasunak babesteko eta nire interes legítimoak ere bai, tratamenduaren arduradunaren aldetik pertsona batek esku hartu duela ziurtatzea eta nik nire ikuspuntua azaldu ahal izatea eta erabakiei aurka egin ahal izatea ere bai.

Nire eskabideari erantzutea aurreko baldintza horiek aintzat hartuta, hilabete bateko epean.

Eskabidea ezin dela onartu erabakitzen bada, niri jakinaraztea nahi dut, arrazoituta, hartara, dagokion agintaritzaren aurrean erreklamatu ahal izateko.

Si de conformidad con el artículo 22.2 del RGPD, no es aplicable el derecho referido, solicito que se adopten las medidas necesarias para salvaguardar mis derechos y libertades, así como mis intereses legítimos, el derecho a la intervención humana y que pueda exponer mi punto de vista e impugnar la decisión, todo ello en el supuesto de que el tratamiento de mis datos personales se fundamente en la celebración o ejecución de un contrato, o bien en mi consentimiento explícito.

Que sea atendida mi solicitud en los términos anteriormente expuestos en el plazo de un mes.

En caso de que se acuerde que no procede estimar la presente solicitud, se me comunique motivadamente a fin de, en su caso, reclamar ante la autoridad que corresponda.

**ESKUBIDEA TRATAMENDUAREN ARDURADUN HONEN AURREAN BALIATU NAHI DA /
RESPONSABLE DEL TRATAMIENTO ANTE QUIEN SE EJERCITA EL DERECHO**

Departamentua /
Departamento

Zuzendaritza /
Dirección

Tokia eta data / Lugar y fecha

Eskatzailearen sinadura / Firma del solicitante



INFORMAZIO OSAGARRIA

I.– Jarraibideak, idatziarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioaz eta bete beharreko ereduaz.

Eskubide honek bermatu nahi du zure datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izatea, profilen prestaketa barne, zure gain ondorio juridikoak edo antzeko eragin esanguratsua izan ditzakeena.

Profilak egitea zure datu pertsonalak tratatzeko edozein modu da, alderdi pertsonalak ebaluatzen dituen, bereziki zure laneko errendimendurekin, egoera ekonomikoarekin, osasunarekin, lehentasun edo interes pertsonalekin, fidagarritasunarekin edo portaerarekin lotutako alderdiak aztertu edo aurreikustea.

NANaren edo nortasuna egiaztatzen duen eta zuzenbidean baliozkotzat jotzen den dokumentu baliokidearen fotokopia aurkeztu beharko da. Ordezkaritza bidez jarduten bada, NANA eta emandako ordezkaritza egiaztatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dira.

II.– Prozeduraren betekizunak.

Eskubidea eskatzen duen pertsonak zuzenean jo behar du bere datuen gain ardura duela uste duen edo badakien unitatera.

Tratamenduaren arduraduna den unitateak eskatzaileari erantzun beharko dio eskaera jasotzen denetik gehienez ere hilaibeteko epean, luzapena arrazoitua izan ezean.

Eskubide hori ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

- Beharrezkoa bada zure eta tratamenduaren arduradunaren artean kontratu bat egiteko edo gauzatzeko.
- Zure datuen tratamendua zuk aldeztu aurretik emandako baimenean oinarritzen bada.
- Europar Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak baimenduta egotea, eta interesdunaren eskubideak, askatasunak eta interes legítimoak babesteko neurri egokiak ezartzea.

Hala ere, lehenengo bi kasuetan, giza esku-hartzea lortzeko, zure ikuspuntua adierazteko eta erabakia aurkaratzeko eskubidea bermatu behar du arduradunak.

Era berean, salbuespen horiek ez zaizkie aplikatuko datu-kategoria bereziei (DBEOren 9.1 artikulua), salbu eta DBEOren 9.2.a) edo g) artikulua aplikatzen bada eta aurreko paragrafoan aipatutako neurri egokiak hartu badira.

III.- Araudi aplikagarria.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez: 22. artikulua.

INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA

I.– Instrucciones para la cumplimentación del modelo y documentación a aportar junto al escrito.

Este derecho pretende garantizar el que no seas objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado de tus datos, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos sobre ti o te afecte significativamente de forma similar.

La elaboración de perfiles se trata de cualquier forma de tratamiento de tus datos personales que evalúe aspectos personales, en particular analizar o predecir aspectos relacionados con tu rendimiento en el trabajo, situación económica, salud, las preferencias o intereses personales, fiabilidad o el comportamiento.

Será necesario aportar fotocopia del D.N.I. o documento equivalente que acredite la identidad y sea considerado válido en derecho. En caso de que se actúe a través de representación deberá aportarse, además, DNI y documento acreditativo de la representación otorgada.

II.– Requisitos del procedimiento.

El solicitante del derecho debe dirigirse directamente a la unidad del que presume o tiene la certeza de ser responsable del tratamiento.

La persona responsable del tratamiento deberá responder al o a la solicitante en el plazo máximo de un mes, a contar desde la recepción de la solicitud salvo prórroga motivada.

Este derecho no será aplicable cuando:

- Sea necesario para la celebración o ejecución de un contrato entre tú y el responsable del tratamiento.
- El tratamiento de tus datos se fundamente en el consentimiento prestado previamente por ti.
- Esté autorizado por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros y se establezcan medidas adecuadas para salvaguardar los derechos y libertades e intereses legítimos del interesado.

No obstante, en los dos primeros supuestos, el responsable debe garantizar tu derecho a obtener la intervención humana, expresar tu punto de vista e impugnar la decisión.

A su vez, estas excepciones no se aplicarán sobre las categorías especiales de datos (art.9.1 RGPD), salvo que se aplique el artículo 9.2. letra a) o g) del RGPD y se hayan tomado las medidas adecuadas citadas en el párrafo anterior.

III.– Normativa de aplicación.

Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, artículo 22.



3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa: 12. artikulua.

16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena: 37. artikulua.

Diputatuen Kontseiluaren 2017ko urriaren 31ko Erabakia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informazioaren Segurtasun Politika onestekoa.

IV.- Erreklamazioak (eskubideen tutoretza)

Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala ahalbidetu bere eskubidearen egikaritza, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan (DBEA) aurkeztu dezake erreklamazioa, horrek eskatzailearen eskubideen tutoretza-prozedura abiaraz dezan.

Erreklamazioa hemen aurkeztuko da: Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. - 01008 Vitoria-Gasteiz - Tel. 945 91 62 39 - Fax. 945 01 62 31 avpd@avpd.eus - www.avpd.euskadi.eus).

V.- Datuak babesteko informazio klausula

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoa betez, datu pertsonalen tratamenduaren berri ematen dizugu eskubide hau gauzatzeko tramitean.

- a) Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna honako hau da: eskubidea baliatzen den tratamenduaren ardura duen Zuzendaritza Nagusia.
- b) Datuen Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke helbide elektroniko honetan: dbo@gipuzkoa.eus.
- c) Ematen dizkiguzun datu pertsonalak ezinbestekoak zaizkigu erregistroan jasota geratzeko, organo hartzaileari bidaltzeko eta eskaera behar bezala tramitzatzeko.
- d) Tratamendua ezinbestekoa da Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorratik eratorritako legeko betebeharrak betetzeko.
- e) Hirugarrenei datuen komunikazioak: legez ezarritakoak eta tratamendu honen eremuan aplikatzekoak direnak.
- f) Ematen dizkiguzun datu pertsonalak gordeko dira soil-soilik horien bilketa eragin duen xedeetarako, eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen ardura posibleak zehazteko.
- g) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu tratamenduaren arduradunaren aurrean, egoitza elektronikoaren helbide honetan eskuragarri dauden formularioen bidez: [Datuen babesa. Eskubideak erabiltzea](#).
- h) Erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuak babesteko arloan eskumena duen kontrol-agintaritzan ([Datuak Babesteko Euskal Agintaritza](#)), baldin eta ez baduzu lortu asebetetzerik zure eskubideak baliatzean.
- i) Informazio gehigarria Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, atal honetan: [Datuen babesa. Tratamendu jardueren erregistroa](#).

Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, artículo 12.

Ley 16/2023, de 21 de diciembre, de la Autoridad Vasca de Protección de Datos, artículo 37.

Acuerdo, de 31 de octubre de 2017, del Consejo de Gobierno Foral por el que se aprueba la Política de Seguridad de la Información de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

IV.- Reclamaciones (Tutela de derechos):

Si el o la solicitante entiende que no se ha garantizado su derecho, puede reclamar ante la Autoridad Vasca de Protección de Datos (AVPD) para que inicie un procedimiento de tutela de sus derechos.

La reclamación se dirigirá a la Autoridad Vasca de Protección de Datos (c/ Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3º - 01008 Vitoria-Gasteiz - Tel. 945 01 62 30 - Fax. 945 01 62 31 avpd@avpd.eus - www.avpd.euskadi.eus).

V.- Cláusula informativa de protección de datos

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 del Reglamento General de Protección de Datos, le informamos acerca del tratamiento de los datos personales en el trámite de ejercicio de este derecho.

- a) La responsable del tratamiento de sus datos personales es la Dirección General competente responsable del tratamiento en el que se ejerce el derecho.
- b) Podrá contactar con el Delegado de Protección de Datos en la dirección electrónica dbo@gipuzkoa.eus.
- c) Los datos personales que nos proporciona son necesarios para la constancia registral, su remisión al órgano destinatario y la correspondiente tramitación de la solicitud.
- d) El tratamiento es necesario para el cumplimiento de la obligación legal que se deriva del Reglamento General de Protección de Datos Personales.
- e) Comunicaciones de datos a terceros: las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.
- f) Los datos personales que nos aporta se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y para determinar las posibles responsabilidades que se pudieran derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los datos.
- g) Podrá ejercitar, ante el responsable del tratamiento, los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición mediante los formularios disponibles en esta dirección de la sede electrónica: [Protección de datos. Ejercicio de derechos](#).
- h) Podrá presentar reclamación ante la autoridad de control en materia de protección de datos competente ([Autoridad Vasca de Protección de Datos](#)) cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.
- i) Información adicional en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el siguiente apartado: [Protección de datos. Registro de actividades y Tratamiento de datos](#).